

## Artisau arrantza eta gizarte aldaketarako egoerak. Hondarribiko arrantzaleen gertaera

(Artisan fishing and situations of social change. The case of the fishermen of Hondarribia)

Anduaga Matud, Jaime

Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia. Miraconcha, 48.  
20007 Donostia

Jaso: 15.11.02

BIBLID [1137-439X (2003), 25; 139-158]

Onartu: 31.10.03

---

*Baxurako arrantzagintzak, eta delako artisau arrantzak ere bi egoera ezberdinei erantzun nahi-behar diete, batetik itsaso-ustiaketa eraginkorra, ustiaketa errentagarria lortzeko merkatu-ekonomian kokatuta izanik, bestetik jarduera ekonomiko iraunkorra, egun garapen iraunkorra deritzona, eta horretarako, garaian hobeto eta gehiago arrantzatzeko punta-puntako teknikak zirenak erabiliz. Egun, globalizazio ekonomikoari eta itsasoaren oreka hauskorrari ekiteko kontzepzio eta eredu berriak indarrean jartzeko garaia ote den galdetzen dut.*

*Giltza-Hitzak: Garapen iraunkorra. Erabakiak hartzeko ahalmena. Merkatu dinamika. Arrantzaleak. Hondarribia. Poterea. Erabakiak hartu.*

*La pesca de bajura y la llamada pesca artesanal quieren-deben responder a dos situaciones diferentes: por una parte, la explotación eficaz del mar, ubicada como está en una economía de mercado que busca una explotación rentable, y por otra, la actividad económica sostenible, hoy en día llamada desarrollo sostenible, utilizando para ello las que en su día fueron técnicas punteras de pesca para pescar más y mejor. Me pregunto si no es tiempo ya de abordar la globalización económica y el frágil equilibrio marino y de poner en vigencia nuevas concepciones y modelos.*

*Palabras Clave: Desarrollo sostenible. Poder de decisión. Dinámica de mercado. Pescadores. Hondarribia. Poder. Toma de decisiones.*

*La pêche côtière et celle appelée pêche artisanale désirent et doivent répondre à deux situations différentes: d'une part, l'exploitation efficace de la mer, placée, comme c'est le cas, au sein d'une économie de marché qui cherche une exploitation rentable, et d'autre part, l'activité économique soutenable, appelée aujourd'hui développement soutenable, utilisant pour cela ce qui était alors des techniques de pointe de la pêche pour pêcher plus et mieux. Je me demande s'il n'est pas temps d'aborder la globalisation économique et le fragile équilibre marin et de mettre en application de nouvelles conceptions et de nouveaux modèles.*

*Mots Clés: Développement soutenable. Pouvoir de décision. Dynamique de marché. Pêcheurs. Hondarribia. Pouvoir de prise de décisions.*

## SARRERA

Orokorki, Europan barrena jazotzen ari diren gertaera zorabiagarriek ekonomian eta kulturen ere –eta honetan batez ere– eragin zuzena daukate; alde guztietan igarri daiteke mezu globalizatzailearen ondorioa, eta arrantza-unibertsoan, jarduera ekonomikoa eta esparru kulturala den aldetik, ondorio hori hautemanda bada ere ez da hain nabaria. Zergatik? Bada beharbada etengabeko aldaketa eta berrikuntzen esparrua delako. Gure artean, eta Jardunaldi hauen testuinguruan kokatuta, Hondarribiko arrantzaleen kolektiboa da nire jomuga, batez ere baxurako edo ur txikitako egindako arrantzari ekinez arrantza teknika erasogarririk erabiltzen ez omen duelako, alegia harrapakina, espeziez sailkatuta eta hauen ezaugarri biologikoez jabeturik, erritmo biologikoa eta urtaroko migrazioa errespetatuz –bizirauteko gutxiengo baldintzak– harrapaketa selektiboa burutzeko erabilitako teknikak. Alde hone-tatik tradizioan kokatuta, noraino esan daiteke oraingo inguruaren presiope-an zintzo-zintzo jarraitzen dutela ildo horretatik? Hau da, itsasoaren ustiaketa industrialaren araberrako ereduak direla eta, tradizio horretan, merkatu-ekonomiak<sup>1</sup> inposatzen dituen baldintzen ondorioetatik aparte daudela pentsa al daiteke?

Emic ikuspuntutik dudarik ez da, bertako arrantzaleak artisau arrantzan jarduten du, berea arrantza selektiboa delako. Baina ekoizpen ere gizarte elkarrekintzetan eta ekoizpen harremanetan dituen eraginak aintzakotzat hartuta, eta bestalderetik herriko giroa dela eta, erkidego horretan azaltzen diren kultura eta sinbolo portaerak kontuan hartuta, ikusten da esana eta eginaren artean tarte bat agertzen dela.

Horregatik beharrezkoa ikusi izan dut azpimarratzea herri honen arrantza-historia etengabeko aldaketaren historia dela. Mendeetan zehar zenbat bider, zenbat egoeratan eta zenbat erabaki hartzera behartuta egon diren ikusi eta gero ezin esan dut erabakiak hartzeko ahalmena aldi oro bere esku izan denik, ezta baina horiek hartu dituztenean beren jardueraren ekoizkina diren espezieen ugalketaren mesederako izan denik ere. Ekologia eta ekonomia berriro ere topatzen dira hemen eta hartutako erabakiaren ondorioa edozein izanik ere barneratu, normaldu eta baita instituzionalizatu ere, egin dutela. Beraz, nola uztartzen da tradizioan finkatutako arrantza-ustiaketa egoera mitifikatu-ezin-hobea eta merkatuak eskatzen dituen lehiakortasun printzipioak? Nola kolektibitateari zor zaion kultura-elkartasuna eta terziarizazioaren aldera joa den bizimodu, elkarrekintzak, espazio-banaketa eta abar?

Planteamendu hau erredukzionista da, kolektiboaren jokabide arrazionalak ez dira bakarrik ondorio ekonomikokoak, badira jarduerak kutsu ekonomikorik ez daukatenak eta horiek dira ere guri harrapatzea dagozkigunak, eta ez gara itsutu behar kolektiboan bertan dauden irizpide ekonomizistaren aurrean, horregatik hartu behar dugu kontuan banakoen irizpidea; hau da,

---

1. Karl POLANYI. 1989 (83) *La economía de mercado supone un sistema autorregulador de mercados (...)* una economía gobernada por los precios de mercado y únicamente por ellos.

izaera ekonomikorik ez izanik subjektu gisa garatzen dutenak eta arlo horretan eragin daukatenak.

Modernitatea eta tradizioa, orain arte bateraezinak izan diren bi bizitzakontzeptualizazioak dira, non lehenengoak bigarrena menperatu ohi duen, alabaina kulturak ez dira museoko piezak, bizirik dauden sistemak dira, bestela ez ziren izango kulturak eta baldin eta gure orainari zentzurik eman nahi badiogu, modernitatearen barrutik bada ere, kultura horiei bizirik irauteko aukera eman behar diogu. Eta alderdi honetan gizarte zientziek betebeharr handia daukate.

Artikulu honetan ikerketa-lan sakonago baten asmoa aipatu nahi ditut. Zertzelada historiko azkar batzuen bitartez irudikatu nahi izan dut herri honetako arrantzale-erkidegoaren traiektoria eta bertan planteatzen dut garaiz garai teknologiaren eremuan hobetsitako aukerek merkatuaren eskakizunaren eskutik datozen beharrei erantzuten dietela. Honez gain eta Hondarribiko arrantzaleek, teknologia eta ohiturak uztartzen jakin dituztelako ustearen aurrean galdetzen dut azturaren bidez bere lan-jardueran eta prozeduran finaturiko tradiziozko zenbait ezaugarriak direla eta, noraino ez ote diren bere etorkizun artisaua ukatzen ari.

Ez da beraz lan historiko-deskribatzailea (horretarako badaude gure arteko egile ugariak egindako lanak eta bildumak) ezta hipotesiak planteatzeko abagunea, burutazioak egiteko unea baizik, eta hori besterik ez dut egingo.

## **HISTORIAREN INTERPRETAPEN LABURRA**

Hondarribiaz lehen aipu idatzita 1203. urtekoa da eta bere historian zehar, orain Gipuzkoari dagokion bezala Nafarroari ere bazegokion. Bere kokapen geografiko estrategikoaz oharturik erromatarrek ere bertan eraiki zuten Asturiagako kabotaje kaia, honen ondoren eta XVI. mendetik aurrera gaurko Magdalena eta San Pedro kaleak, hurrenez hurren, izan ziren beste hainbeste kaien kokalekuak. Denboraren poderioz hauek desagertu ziren eta Garaikide Aroan beste bi kai eraiki zituzten, aurrenekoa XIX. mendean eta oraindik ere *Kai Zaharra* deritzona, bigarrena XX. mendean eraikita, gaurko *Kai Berria* dena da.

Hondarribiko arrantzale-jardueraren lekuko idatziak edo grafikoak XIII. mendekoak dira eta handik gutxira dugu Kofradiaren hastapenaren aurreneko berri. Erdi Aroko garaian honetan burutzen zen arrantza motaren berri aunitz dira, ugari dira kostalde honetan balearen arrantzaz mintzatzen diren kronikak eta iritsi zaizkigun lekuko idatziak, eta hain zen garrantzitsua ehiza mota hau ezen pentsa daiteke beste itsas izakien arrantzarik ez zela, edo izatekotan etxeko kontsumorako bideratuta zegoela. Ez zen horrela, ordea.

Dudarik gabe Gipuzkoaren eta Gaskoinaren (Lapurdi) arteko merkatu-harremanak Gaztela, Ingalaterra eta Nafarroaren arteko harreman-politikoek

baldintzatzen zituzten, horrela, hiru herrialdeen arteko merkataritza-harremanak, eta horien artean arrantza ekoizkinei zegozkiena ere, bestelako elkarbizitzaren baldintzen arabera kontrolatu ziren. Dena dela, euskal-gaskoinako kostaldean orduko arrantza eta arrain-merkatuari buruzko egoera erabat araututa zegoela konstatatzeak<sup>2</sup> jarduera honen garrantziaz eta finkapenez hitz egiten digu, baina izan ere ez zen beste aukerarik, “merkatu ekonomia” ez zen hartan merkatuak ez zuen ezer kontrolatzen –merkatuak bere buru kontrolagarria– horretarako XVIII. mendera arte itxoin behar genuen. Berant Erdi Aroan, XIII. mendetik aurrera, agertzen ziren lurraldeotan indarrean jardun behar zituzten arauak, Foruak, Alfontso X.a, Aldundiak, Udalak eta Kofradiak, Monasterioak Jauntxoek eta abarrak ziren horien egileak eta beren eraginak, bizitza arrunteko lan eta gizarte-harremanak zuzentzen zituzten arlo guztiei zabaltzen zien. Horrela, arrantzaz gain, arrantzale eta arrantza-merkatariari buruzko jarduerak, salneurriaren kontrola, Kofradien betebeharrak, eskifaien osaketa eta lan-harremanen egituraketa, hala nola etekinaren banaketa eta arrantzaren kalitatea erabat finkatuta eta araututa zeuden<sup>3</sup>.

Larramendik Gipuzkoaz pentsatzen zuena pentsatzen zuela, XIII. mendean nabariak ziren behar bezala elikatzeko zituzten arazoak. Beraz, leku-gobernuen lehentasunetariko bat populazioa ondo hornituta eta salneurri eskuragarrian ongi asebetea egona izan zen, eta horretarako merkataritza erabat araututa eta kontrolpean egon behar zen, baita bertan ekoizten zen elikagai gutxietarikoei buruzko kantitatea ere, eta hauen artean arraina zen (Hemen “beherako enkantea” arraina-ekoizpenaren merkataritza kontrolatzeko eta elikagai merke eskuratzeko modutzat jo beharko genuke).

Inaki Erkorekak dioenez, sektorearen gremializatzek bi zio zeuzkan: arrainaren preziorik bajuena lortzea eta harrapatutako arrain guztiaren salmenta bermatzea<sup>4</sup>. Praktikan, bi jarduerok edo helburu hauek bateraezinak ziren eta maiz jokatzeko zuten elkarren aurka, batez ere, Kofradiak izakunde autonomo gisa<sup>5</sup> bere ekintzetan gremiozko itunak eta berariazko interesak zirela medio, mandazain eta tratanteekin era zuzenean eta lehenetsiz, –eta bere lanaren dimentsio soziala kontuan hartu gabe– merkatal-harremanei ekiten zietenean, alegia etekin ekonomikoak lehentasuna zuenean (edo bestela esanda, eurek egindako lanaren ekoizkinari buruzko erabakia beren esku –nolabait– gelditzen zenean) Kontuan eduki behar dugu arrantzatokirako eta ekintzarako sarbidea dagoeneko mugatuta zegoela<sup>6</sup>, XVI. mendetik aurrera –hau da, kontserba-tekniken garapenarekin batera– arrantzaren garapena

---

2. GOYHENECHÉ, E. 1990 (227).

3. ERKOREKA, J.I. 1991 (257).

4. Ibidem 1991 (277).

5. Ibidem 1991 (398).

6. ALBERDI LONBIDE, X. 2000 (103).

honen menpe gelditu zela. XVII. menderako erabat zabaldurik ziren kontserba-elkarteak<sup>7</sup> eta gauza arrunta zen salmenta zuzena egiten saiatzea, garai-ko mandatarien menpekotasuna saihesten saiatzea. Dagoeneko merkatal eraginak sumatzen ziren eta bertan kontserba-industriaren indarrak, dudarik gabe, gaurdaino luzatzen diren beren ondorioak uzten zituzten agerian, eta honekin batera mota ezberdineko gatazka eta arrantza-teknikaren garapena eta aldaketak ere onartu ziren.

Hauen artean sare berriak ziren kostaldeko espezieak –antxoia eta xardina– harrapatzeko erabilitako teknikak. Izan ere trainerua “traino” hitzetik dator, hau da xardina harrapatzeko sarearen izenetik. Eta hala da, traineruan zeramaten sarea gaurko *zerko* ala *bolitxe* izenekoak ziren xardina eta antxoia harrapatzeko erabiltzen zutenak alegia. Ez ditut hemen aipatuko horretarako erabiltzen zuten teknika edo sareen neurriak bai ordea, C. Claveriak<sup>8</sup> jasota zeukan arrantzatzeko tankera hori Hondarribian bertan asmatua izan zela eta teknika berri honek izan duen garrantzia eta eragina lotuta dago kontserba industriari.

XVI. menderako, arrantzaleek finkatuta zeuzkaten bere inguru hurbileko espezieen ezaugarri fisiko-biologikoei egokitzen zitzaizkien arrantza teknikak. Etengabeko aldaketa prozesuan, arrantza tresnak eta arte berriek harrapaketa kopurua handitzea ahalbidetu zuten, kontserbagintzak eskaria egonkorra eskatzen zuen eta arrantza jarduera urteetan zehar aldatuz joan bazen, lehorreko egituraz zer esanik ez. 1521. urtean Hondarribiko gaurko *Alde Zahar*ean 470 etxe baziren, harresietatik at berrogeita hamarren bat besterik ez zen, hauek denak arrantzaleenak, eta hauek, zeriaren harrapaketa gain kontserbarako espeziez arduratuak ziren.

Utrecheko Itunaren bidez (1713) mendebaldeko estatupean zegoen uni-bertsoaren banaketa burutu zuten eta mundualizazioaren adierazpen honek euskal arrantzaleei Ternuko ohiko arrantza-kalak kendu zizkien. Beraz, XIII. mendez gero ziharduten bale arrantzari aurretik, eta hau agortzean, bakailao arrantzari ondoren, alturako arrantzari etena eman zioten.

Zinegetika-jarduketa bezala, balearen harrapaketa XIX. mendera arte iraun zuen, egia da ez aurreneko mendeetan emandako grinaz, batez ere zeriak (Eubalaena glacialis edo balaena biskaiensis, “Sardako balea”) bertako uretatik desagertzen ari zirelako. Hil eta ez harrapatutako azken zeta-zeo handia 1883. urtean izan zen. Orduz gero zerien harrapaketa behera etorri zen. Dena dela balearen kontua aparte utzita euskal arrantzaleak Kantauri itsasotik lekutara joan omen ziren, Ternuraino hain zuzen, eta ber-

---

7. *Ibidem* (119) *Permitió a muchos pescadores (...) romper los estrechos límites de acción existentes anteriormente*. Egia esan kontserba-industriaren eraginak arrainaren neurrigabeko harrapaketaraino iritsi zen.

8. CLAVERIAK, dio Mitxel Iriartek, XVIII. mendeko Britainari buruzko txosten batean agertzen dela aipamen hau. CLAVERIA, Carlos 1965 (275).

tan zeriarekin batera edo arrantzaleak hasi ziren bakailoa arrantzatzen XIV. mendean<sup>9</sup>.

XVIII. mendean arrantza jarduera enpresa kapital dinamikan sartzen da buru belarri. Krisi bat sortzen da eta baita erantzuna ere. Alberdi Lonbidek<sup>10</sup> dioenez instituzioek etekin usainaren aldera jo zuten, ez ordea kontserba industriaren inguruan sor zitekeen etekinaren aldera, eta horrek kontserba-enpresa askoren behera ekarri zuen. Une honetan ere kanpoko ekimenak izan ziren egoera berrien sustatzaileak, ahaztu gabe zenbait Kofradiak ere bere gain hartu zutela kontserba jarduera, honek ematen zuen protagonismo mailarekin. Beharbada hemen ikusi behar da zenbait egilek<sup>11</sup> azaltzen duten Kofradien garrantzia eta erabakiak hartzeko ahalmenaren hastapenak.

XIX. mende bukaeran eman zen aldaketarik handiena lurrunezko itsasontziekin, hauek ahalbidetu baitzituzten arrantzagintza modernorako baldintza teknikoak eta ordura arteko arrantza arteek iraultza ezagutu zuten. Garai hartan agertu ziren aurreneko arraste-arrantzarako sareak eta XX. mendean sartuta, bakailoaren arrantzari berriro ere ekin zioten.

Lehendabiziko baporea 1903. urtean eraman zuten Hondarribira, baina 1920. urtean ere baziren belauntziak, *traineru haundiak* izenekoak, alegia. Hauetan, baporeetan bezala 12-14 lagun inguru zebilen, baina arrantzatzeko egoerak erabat baldintzatuta zeuden itsasontziaren ezaugarrien arabera.

Etengabeko egokitze prozesu honen lekukoren bat, Hondarribiko Bentaren egoitzak izan dituen kokapen ezberdinak izan litezke. Azkeneko berrehun urteetan bost izan dira eraiki direnak eta Bentekin batera arrantza-kaien berrikuntzak eta handitze lanek adierazten zuten arrantza-jarduerak zituen garrantzia.

Beraz, hemen ikus dezakegu arrantza "industrial"<sup>12</sup> mota batetik eta bitarteko historikoak direla medio, baxurako arrantzarako egokitze prozesua eman zela, eta honetan jarraitu omen zen gure mendera arte. Teknologia berrien emaitzen artetik ekoizpen bideari dagokiona izango litzateke garrantzitsuena.

---

9. SELMA HUXLEYK dioenez Ternurainoko bidaia ez zen izan balearen harrapaketa eraginarekin ondorioa, bestelakoa baizik, izan ere XVII. mendean bertako arrantzaleak Galiza aldera, baleak, hegoalderako bere migrazioan harrapatzea joaten zirelako berri badira "Los vascos y las pesquerías transatlánticas 1517-1713" *Itsasoa* 3. Zenb. (28).

10. ALBERDI LONBIDE, X. 2000 (127).

11. ASTORKIZA, K.; DEL VALLE, I. 2002 (49-60) Kofradien betebeharra eta funtzioei buruz, beste egile batzuk ALEGRET, J.L.; REBOLLO et al. MURUGARREN, L.; MOREDA, G.

12. "Industrial" diodanean kantitateari garrantzia ematen dion ekoizpen eraz ari naiz. Honen barruan balearen harrapaketa sar daiteke eta. Kontuan hartu behar da XVII. mendean eta Eugène Goyhenechek diogunez "...à Saint Sébastien au XVIème siècle il existait une Compagnie des Baleines, qui compta en 1641 jusqu'à 41 bateaux, 248 chaloupes et 1475 hommes" GOYHENECHÉ 1990. (246) Garai honetan Hondarribiko bale ehiztariak 146 ziren. Beharbada harrapaketa eredu hau izango zitekeen Kantauriko balearen desagertzearen zioen bat.

## 1. Koadroa. Baxurako arrantza motaren sailkapena, arrantza tokien arabera<sup>13</sup>

|                                     | <b>Kostaldea</b>  | <b>Itsas Bazterra<br/>(hondokoa)</b>   | <b>Itsas zabala</b>                                  |
|-------------------------------------|---|--|--|
|                                     | Plataforma<br>Kontinentala<br>(14 milako zabalera)                          | Itsasbazterreko lerroa<br>(200 kmko luzera)                                  | Gainazaleko arrantza                                 |
| <b>Neurriak / TRB</b>               | 4-12mt <15 TRB  | 10-20mt < 50 TRB   | 20-35 mt < 200 TRB                                   |
| <b>Marea</b>                        | Egunekoa  | 1/20 egun  | 1/30 egun  |
| <b>Arrantza mota</b>                | Heterogeneoa<br>Mariskoa,<br>zefalopodoak, lupiak,<br>krabak, sapoak, etab. | Berezituta<br>Txitxarroa, Berdela,<br>Legatza, Hegaluzea,<br>Arrosela, etab. | Berezituta<br>Atuna, antxoa                          |
| <b>Kontsumo mota<br/>Teknologia</b> | Bertakoa<br>Maila txikikoa,<br>mekanikoa                                    | Merkatua<br>Ertaina, mekanikoa<br>eta elektronikoa                           | Merkatua<br>Konplexua, mekanikoa<br>eta elektronikoa |
| <b>Tostartekoa<br/>Teknikak</b>     | 1/3<br>Mistoa,<br>Nasak, Trasmailoa,<br>Amua                                | 3/6<br>Amu arteak,<br>Tretza etab.   | 6/15<br>Amua, Inguraketa<br>sarea                    |
| <b>Hondarribia</b>                  | Alerik ez da, (bat<br>akaso)  | “Legatzetakoak” 15<br>barku  | “Karrerakoak” 25<br>barku                            |

J. Antonio Apraizen datuetan oinarritutakoa *Zainak* 15. Eusko Ikaskuntza 1997.

Gasoileonak, agertu zirenean bizimodua erabat aldatu zen. Barkuak askoz hobeto horniturik ziren, kubiarta, puentea, kamaroteak etab., baita gasoileo usaina eta etengabeko hotsa eta dardarak ere. Ontzian izan zen nolabaiteko espazioaren zatiketa, puentean, patroia, makinista, motorrean... Ez zen dagoeneko espazio bakarra, ekoizpen era berriak lanaren banaketa eskatzen eta areagotu zuen. *Beita bizia* hegaluzea harrapatzeko eta *ardora* antxoarako normaldu ziren teknikak ziren. Pasaiko PYSBEn urteak ziren, eta txopa aldeko haize honekin mozkorraldia kolektiboan sartuta zeuden armadoreak, baita arrantzaleak eta merkatariak ere.

1900-1930eko urteetan Hondarribiko lehorreko paisaian aldaketa garrantzitsuak egin zituzten, Marinako auzoa, Boutron pasalekua eta Puntala eraikitzeko lurra itsasoari kendu zioten. Hondartzazaleentzako txaleta ugari sortu zituzten auzo berri horretan. Hiria, hiru zati oso bereiztuan banandua zegoen, batetik kalea, gero arrantzaleen auzoa eta bestetik bisitarien esparrua. Hau da, iparraldean itsasoa eta hondartza, mendebaldean arrantzaleak eta base-

13. Arrantzuntzien banaketari buruz Juan Antonio APRAIZek egindako lanean, *Zainak* 15 (281-296) eta bertan dioenez “*Aunque en su día estas denominaciones definían claramente por sí mismas el tipo de pesca practicado (...) estas denominaciones precisan de una mayor profundización ya que algunas embarcaciones de bajura llegan a zonas de pesca tan lejanas y con mareas tan largas como las de altura.*”

rritarrek, ekialdean bisitari burgesak eta hegoaldean kaletarrak. Baina kontu hori ez da atzo goizekoa XIX. mendean, “Kai Zaharra” eraikitzeke azaldutako arrazioen artean, *Bainuak hartzera eta txalupan ibiltzera etortzen diren udatiar ospetsuak eta Frantziako Enperadorea Biarritzen zegoelarik, bisitak egitea agindu zuela*<sup>14</sup>, hauek agertu ziren.

1936-1939ko gerra garaian barku asko egokitu eta erabili zuten dragaminak bezala. Arrantzaketa murriztu zen eta arrantzaren inguruan sortutako giza egiturak nolabaiteko etendura pairatu zuen<sup>15</sup>. Gerraostean berriz, eta Espainiako populazioaren elikadura-beharra eta gabezia zela eta, indarrez berpiztu zen jarduera.

Hondarribian 1957. urtean hasi zen legatza eta arrosela amuz harrapatzen. Hondarribiko arrantza motarik nagusiena izatera heldu arte, egoera honek bizimodu maila gehiago gorarazi omen zuen. Ontzigintzak hazkunde izugarri ezagutu zuen eta ez Hondarribian bakarrik, Gipuzkoan eta Bizkaian, Bretaina Handian eta Alemanian baino arrantzuntzi gehiago omen ziren<sup>16</sup>. Garai honetako urteetan arrantzaleen bizimaila inoiz baino hobea omen zen.

Hondarribia berez, herri-uhartea da, bere kokapen geografikoa itsasora baizik ez doan bidean dago, horregatik beharbada, izan da hain oharkabekoa Madrilgo elite batentzat izan ezik. Garapen industrialak beste toki askotan kokaleku bilatzen zuen bitartean, Hondarribian ez omen zen lekurik honentzako eta bat batean bere birjintasunezko izaeraz jendea ohartu zen. 1960. urtean 8.581 biztanle baziren, 1965.ean 9.362 ziren eta 1969. urtean 10.173ra heldu zen, hau da bederatzirteotan % 18ko hazkunde. Honek denak bertako populazio orokorrean eta zehazki arrantzale eta baserritarren bizimoduan eta espazioan eragin itzela izan zuen.

Kalean –Alde Zaharrean– etxe eraikuntza berririk apenas nabarmen zen bitartean landa eremu eta arrantzaleenean eragin gogorra eta masiboa izan zuen. Ez zen, berriz, azkeneko aldaketa izango. 1977. urtean Frantziak 200 milako itsas mugak ezarri zituen. Horrela lehorreko espazioa eta paisaia murriztua eta itsasokoa zehaztuta, arrantzaleak buru belarri sartarazi zituzten krisian.

1986. urtean Europako komunitatearen akordioen bidez baxurako arrantzagintza erabat diskriminatua gelditu zen. Espainiako Gobernuak ohiko espezien arrantzari uko egin zion eta ezkerotzik ohiko arrantza tokiak beste herrietako arrantzaleek agortarazi zituzten.

---

14. *Hondarribia* Aldizkaria zenbaki berezia 1997ko irailean. 16 orr.

15. MARTÍNEZ GONZÁLEZ, Migelek dioenez *La administración pesquera española nació como un sistema de control poblacional orientado a proporcionar a la Marina de Guerra un contingente material y humano de reserva (...)* VIII Antropología Kongresuko aktak. 3. liburua.

16. Juan GRACIA CÁRCAMO “Un breve recorrido por la historia de la pesca en el País Vasco” *Euskonews&Media*.



Egia esan, Hondarribia burgesiarentzako lekua izatetik turismo-gune izatera irago da, gaur egunean ez da espazio berezirik non arrantzaleek euren burua koka ditzaketenik. Hiri espazio berriaren eraikuntzak elkarrekintza-espazioak banandu zituen, bereiztu zituen, ordura arte nahasia zeuden elkarbizitarako espazioak, fisikoki erabat bereiztu zituzten eta honekin batera gizarte-elkarrekintzaren usadioak. Halaz ere, oraindik ikus daiteke zahar gutxi batzuk goizero, “karro” aldean biltzen direnak. Arrantzale gazteak ez omen dute halako arazorik, hauena bestelakoa da, etxebizitza, etorkizunaren adurra...Hondarribitik kanpora bizitzera eta lana egitera bultzatzen dituen egoerak, alegia. Arrantzaleak pixka pixkanaka arlo publikotik zokoratu dituzte, itsasotik lehorrera, lehorretik itxurazko eszenategira, eta oraindik gelditzen zaien esparru bakarra bisitarien eta turismorako mesederako den alde folkloriko-estetikoarena da.

“Itsasoa, zer da zuretzat?”... “Itsasoa?, Gauza ederra, itsasoa kenduko baziguten nora joan beharko?, mendira? Inora joanik ez!... Itsaso sakratua munduko arrantzale dena buru, eta orain arte horrek jendeari ogia ematen digu, baina hemendik aurrera izorratuko dugu...”

Hitz hauetaz deskribatu zuen nire informatzaileak bere sentimendua, eta ikusten denez itsasoa bizimodu baino zerbait gehiago zela. Arrantzaleak ez zuen ikusten itsasoa lan toki hutsa bezala, baserritarrak bere baserria ikusten ez den bezala.

“Nora joan beharko, mendira?” Hau da, nola irudikatu itsasoaren sakan-tasunaren kontrakoa mendietako gailurrez ez bada? Ez txarra delako kontrakoa baino. Ez du esan “kalera” baserritarrak esango lukeen bezala. Elearen lirika honen bidez, ezezkotasunaren bidez azpimarratu nahi du bere bizimoduaren ezinbestekotasuna. Eta hori da hain zuzen jokoan dagoena.

Arrantzaleak ez dio progresuari muzin egiten, gai da aurrerapena asimilatzeke eta behin eta berriro hori frogatu du. Beti ere aurrerapena bere gogotik sortua eta bere beharrei erantzuten dien heinean. Baina ez ote da –ia denok bezala– etekin ekonomikoaren lorpenarekin kutsatuta izango?

IKEIk 1983an egindako txostenean agertzen diren ondorioek garbi uzten dute noren mesedetan dago diseinatuta aurrerapena. Txostenean azaltzen den gainbeheraren arrazoiak, segur aski horiexek dira, baina ez du sakontzen non arraio duten jatorria<sup>17</sup>.

Txostenaren azkeneko puntuari deigarri deritzot, Guk ere ez ote gara egiten gauza bera? Ez al gara ikertzen ari desagertzeaz dauden “espezia”? Edo bestela esanda giza zientzietan garatzen diren gaiak, sortzen diren emaitzak, ezagutaraztera ematen diren portaerak, ez ote dute erabiltzen

---

17. Komenigarria da hemen, FERNÁNDEZ, Mercedesek, *Zainak* 21.ean, bere tesiari buruz egindako laburpena irakurtzea.

Sistemaren mesederako? Hemen berriro ere sortzen zaigu Natura/Kultura bikoiztasuna.

Bestaldetik ez da esaterik arrantzale erkidego guztientzat eredu orokor bakarra denik, belaunaldiz-belaunaldi eta herri bakar baten barruan, zein arrantzale mailakoa den halakoa izango da bere irizpidea. Hau da kultura zehatz baten ezaugarrien partaide izaki, lan mailak edo honen bidez lortutako arrakastak emango dio status sozialaren erreferentzia-gunea. Ez da beraz eredu soila jartzerik arrantzale den erkidego guztientzat. Bere lehorreko ingurugiroak bere herriaren kokapenak, bereizten dute bere jarduera, baina bere kosmobisioa itsasotik datorkio.

Baina, herriko paisaia bere esku ez badago, itsasoko paisaia aldagarria baldin bada, ontzien espazioa teknika arlopean badago, zeintzuk dira, orduan, arrantzaleek eragiten duten ingurugiroa? Bada toki hauen guztien esanahi soziala hain zuzen. Esana dut bere espazio-paisaiaren ezaugarriren bat sozialitatea dela eta beharbada horregatik da hain zaugarri, horrexek bihurtu du arrantzalea hain malgu.

Bestelako ondorioak sortarazten ditu barneraezinak diren gertaerak, eta hauek azkeneko denboraldi honetan denak batera sortu direla ematen du. XIX. mendean gertatu zenaren antza, kosmobisiotik hasita hurbilen den paisaia arteraino den dena aldatzen ari zaio eta arrantzaleak ikusten du bere ingurua, eta honekin bere bizimodua galtzen ari dela. Beraz, bere jardueraren alde ekonomikoan bakarrik ez ote da murgiltzen izango ari?

Giza sistema aldatzen ari da eta, azken finean egokitze ekonomikoaren arazoa da. Itsasoa ez da jadanik eremu kulturala, ekoizpen gune baizik.

## **ALDAKETAREN ZENBAIT FAKTORE**

Ikusi dugunez Hondarribiko arrantzaleen errealitatea, sektoreari zegokion aldaketekin aldatuz joan da. Aldaketa honen zenbait faktoreren eraginak ezin dugu ukatu eta gainera testuinguru sozio-ekonomiko jakin bati dagozkiorarik faktore horiek identifikatuta daude dagoeneko. Esan nahi dut, ez dela koiunturazko egoera eta kai bakar bati dagokiona baizik eta egiturazko egoera non sektorea bera murgilduta dagoen, arrantza mota guztiak bere eraginpean izanik.

Beren kokagunea dela eta, logikoa da pentsatzea bertan tipaturiko giza kolektiboak arrantzan jardutea. Beharbada jarduera ekonomikoa inguruneak aurremugatuta dago baina horrek ez du esan nahi erabat baldintzatuta dagoenik. Hau da, kasu hauetan bertako jendea historikoki arrantzarako "behartuta" bazen ere hemendik sortutako ekoizpen eta gizarte harremanak ez dira zertan derrigorrez berdinak izan, azken finean hauek beste faktore batzuen mende ere badaude, bere inguruko beste kolektiboekiko elkarrekintzapean kasu. Eta beste leku askotan bezala

bere lan-kultura<sup>18</sup> eraiki dute, zenbait egiturak, hautemate, pentsaera eta ekintza hastapen bihurtuz.

EAEko hurbilen dagoen beste arrantza kaia Pasaiakoa da eta honen joerarekin erkatuz gero ikus dezakegu, egun, Pasaia askoz gehiago jo du Donostia aldera, (izan ere, Pasaia Donibane XVIII. mendean banandu zen Hondarribitik) Hondarribiak Irun-Hendaiara jo duen bitartean. (Hendaian, dagoeneko arrantza jarduerarik ez da, bere Benta aspalditik itxita izanik kaia, kirol jarduerarako ontziei egokituta dago) Dolors Comasek<sup>19</sup> Cole eta Wolf aipatuz, dio ingurune berdintsuan dauden erkidegoen dinamika ekonomikoan garaturiko jardueretan eragina dutela erkidego bakoitzaren historiak eta hurrenez hurren beren inguruko beste kolektiboekin dauzkaten harremanek.

Dena dela jarduera ekonomikoaren arloan erabakiak hartzeko hastape-nak, baliabide ekonomikoak ustiatzeko erabiltzen den eredu ekonomikoaren arabera dira, eta kasutan bi dira Aro Industriala garaikidean emandakoak. Pasaian, adibidez, alturako arrantzaren bidez maximizazioa eta Hondarribian artisau arrantzaren bidez asetasunarena<sup>20</sup>. Horrek ez du esan nahi Pasaian bestelako ustiaketa motarik ez denik, izan ere oraindik izan bada artisau arrantza jarduera indarrean dagoena, baina ez da hori arrantza kaiari bere nortasuna eman diona. Horrela, bi kaiotan eta testuinguru honetan agertu ziren ezaugarri nagusien gutxiengo banaketa hauxe izan liteke.

| <b>Pasaia</b>           | <b>Hondarribia</b>    |
|-------------------------|-----------------------|
| Maximizazioa            | Asetasuna             |
| Teknologia industrialia | Artisau teknologia    |
| Soldata/Mixtoa          | Partia                |
| Altura                  | Baxura                |
| Donostiara begira       | Irun-Hendaiara begira |
| Industria giroa         | Turismo giroa         |

---

18. Lan-Kultura, Garatzen den lan-jardueratik abiatuta kolektibo batek bere bizimodua edo *ethosa* sozializatzeko eta bersortzeko eredutzat hartzen dituen identitate-ezaugarriak. Bi arrisku agertzen dira definizio honetan, identitate-fenomenoa den aldetik ekonomi- Sistemak erkidegoaren identitatea eta lan-prozesua uztartzen ditu, ez da bigarrena ukatzerik aurrenekoa suntsitu gabe, eta banakoak, kolektiboarekiko bere identitatea-menpekotasuna garatzen duen lanarekiko zintotasunean datzala ikusten du. Bigarrenean, aldaketaren prozesuan ematen da, erabakiak hartzeko nean, egonkortasuna bermatzen duen horiek hobetsiko dira, esplizitoki aldaketa aldarrikatzen duten haiek ukatuz .

19. 1998 (143).

20. MARTÍNEZ-VEIGA, Ubaldo 1990 (147).

Gizarte-aldaketa prozesu honetan aurki ditzakegun arrazoiak exogenoak zein endogenoak dira. Aurrenekoen artean hedapen zabaleko eredu ekonomikoaren eraginak daude nagusiki eta bigarrenen artean, garatutako lan-kultura eta hemendik ondorioztaturiko nortasun-egiturazko matrizea. Isidoro Morenoren arabera<sup>21</sup>.

Gizarte-aldaketa gizartea bera bezain fenomeno arrunta da, eta gizarteaz hitz egitea gizarte aldaketari buruzko aipamen inplizitua egitea da. Gizarte-aldaketak duen ezaugarriren bat da, bere izaeran, denbora eta espazioaren poderioz, itxura ezberdin hartzen duela. Hau da, gizarte aldaketak ez du suposatzen ematen den aldiro itxura bera daukatenik; aldaketak zio, erritmo, eragile, eta abar ezberdinak baititu.

Une honetan era nabarmenean, gizarte aldaketarako balio izan duten zenbait baldintzak, denak batera azaltzen ari dira, eta gainera aldaketa horren ondorio sinbolikoak plazaratzen hasi dira. Beraz, une hau gizarte-aldaketaren beste une baten adierazletzat hartuta, saiaturiko naiz erakusten herri honetan burutzen ari den aldaketa zertan datzan, ez aldaketa horren zioak argitu nahian ibiltzen naizelako, *nola* burutu eta zer nolako eraginak izan dituen interesa zaidalako baizik.

Hemengo aldaketa prozesua, –eta egun, gizarte-aldaketa guztiei egotz lekieke ezaugarri hau–, modernitatearen fenomenoaren jarraipena den ditxosozko globalizazioaren inguruan burutzen ari da; hau da, nazioarteko (edo hobeto esanda estatuen arteko) fenomeno prozesuala non –besteak beste– merkatuaren zenbait arlo globalismoaren inguruan garatzen diren. Globalitatea da beraz, oraingo gizarte-paradigma eta bertan gauzatzen diren prozesuak globalizazioaren esparruan –jarduera politiko gisa– eta globalismoaren bidez –ideologia– garatzen dira<sup>22</sup>. Baina globalizazioaren muina arlo ekonomiko-merkantilean kokatu behar dugula inori ukatzen ez zaion arren, ez dugu horregatik bertan gelditu behar eta ikusi behar dugu gizarte baldintzetan ere dituen eraginak.

Globalizazioaz mintzatzean, munduan ematen ari den elkarmenpekotasun osoaren prozesuaz eta mundua osotasun gisari buruzko kontzientziaz ari gara<sup>23</sup>, beti ere kontuan hartuta ez garela denok parte hartzen maila berdinean. Duela berrogei urte, formalistek eta sustantibistek burutu zuten elkarren arteko eztabaidan hauteman ditzakegu orain bizitzen dugun egoerari buruz informatzen diguten azarnak<sup>24</sup>. Formalistek aurkeztutako planteamen-  
duan, laburki esanda, hauxe agertzen zen. Aukera anitzeko egoeraren aurre-

---

21. Ekoizpen harremanak, genero harremanak eta harreman etnikoak, egiturazko gizarte-harremanak. MORENO, Isidoro AREAS 19. Aldaketa prozesuan, beraz, barneko arrazoiak direla eta baldintzatuta dago aldaketa maila .

22. BECK, Ulrich 1998 (27, 127 ss).

23. MORENO, Isidoro 1999 Actas VIII Congreso de Antropología.

24. PLATTNER, Stuart (1989) 1991. (32) MARTÍNEZ-VEIGA 1989.

an hautaketa pertsonala omen zela gizarte-ekintzaren oinarritzko elementua; erabaki hori, beti ere, ekonomia izaerakoa izanik. Bada, antzeko ildoan hautesman dezakegu globalitatearen giro honetan, zenbait berezitasunak kontuan harturik, oraindik ere banakoaren erabakiak eredu ekonomikoaren erantzule balira bezala hartzen dira.

Benetan mundualizatuta dagoena da elkarrekintza maila; hau da, munduko kultura ezberdinei dagokien fenomeno amankomuna elkarrekintzetarako gaitasuna da. Hau garbi agertzen da finantza munduan, kultura-adierazpenean, industrializazioaren ondorioetan, merkatu-jardueran, pobrezia-aren hedapenean eta informazioaren helarazpenean. Testuinguru honetan globalizazioa<sup>25</sup>, munduko estatu ezberdinen artean, nazioarteko erakundeen bidez, sortzen diren bilbatze-prozesua da, baina hartu-eman horretan gehiago dira “ematen” hartzen dutenak baino. Elkarrekintza globalizatua izanak ez baitu esan nahi berdintasun egoeran ematen denik, elkarrekintza globalizatuan bi mailatako harremanak burutzen dira. Herri industrializatuen artekoa (edo herri azpigaratuen artekoa) eta industrializatua eta azpigaratuen artekoa, –edo bestela esanda, kultura nagusien artekoa (edo menperatuen artekoa) eta kultura nagusia eta menperatuaren artekoa– Mota horiek denek agerian uzten dute globalismoaren bidez betetzen diren harremanen hierarkizazioa eta egitura bertikala.

Globalismoa da hain zuzen, gizarte-elkarrekintzak merkatu harremanen eremuetara mugatzen dituenak, hortaz, harremanen dimentsio politikoa, juridikoa, kulturala, zibila, soziala, baloretakoa eta baita ekologikoa ere mugatuta daude beren baitatik zurga daitekeen etekinaren arabera.

Teknologia da globalizazioa ahalbidetzen duten posmodernitatearen alde-atariko bat, eta honek hiri-espazioa erabiltzen du garabide gisa, urbanizatu-industrializatuta ez diren esparruetan teknologiaren erabilerak zentzurik ez baitu. Globalizazio prozesuaren antolakuntzarako ezinbestekoak diren erakundeak, burokrasia, baloreak, elkarrekintzak eta abar ez dira hiri espazioan baino beste inon hobeto garatzen. Oraingo hau urbanizazio prozesua da non portaerak eta jarrerak baldintzatuta dauden<sup>26</sup>, bertan gauzatzen dira globalizazioaren egiturak, hiri-komunitate bati dagozkion elkarrekintzen ereduaren gainean ezarritik Horregatik kultura urbanizatuaren baloreak ezartzea kultura-kolonialismo mota bat da –lan kultura jakin baten ereduaren ezartzen duen neurrian– zeinen bidez ekoizpen prozesuak, terziarizazioaren garapenak eta merkatu-jardueren dinamikak hiri-inguruko eremuetan burutzen diren.

Galdera da kultura-kolonialismo hau garapen-eragilea ala honen ondorioa den. Nire ustez, kultura-kolonialismoa garapen kapitalista neoliberalaren ezinbesteko aurrebaldintza da. Globala, leku askotan eta denean batera egoitea da<sup>27</sup>, hau da, leku ezberdin askotan, bertako kulturaren partaide izatea

---

25. BECK, Ulrich 1998 (29).

26. SIGNORELLI, Amalia 1999 (72).

27. BECK, Ulrich 1998 (76).

lortzea da, eta, bestela badirudi ere, egoera honetatik ez da derrigorrez sortzen kulturaren homogenizazioa. Beck-ek dioenez, joera kultural anitz izatea merkatu-dinamikarako mesedegarria da. Gertatzen dena da egoera horretan sortzen eta garatzen diren kultura ezaugarriak kontsumorako egina daudela, eta hortik, lekuko espezifikotasuna adierazteko, egun folklorismo lokalistak hartzen duen garrantzia, kultura-jarduerak/ikuskitun merkantilista, kultura-ekoizpenak/aisialdirako ekoizpenak, *prêt-à-porter* egindako<sup>28</sup> sasi adierazle etnikotzat har genitzakeen ezaugarri horiek.

Globalizazioaren fenomenoaren ondorioz, botere-egitura berriek gizarte erakunde politiko eta kulturalak eragiten dituzte. Horrek zalantza egoeran paratzen ditu gizarte eta banakoaren kontzeptu tradizionalak, alegia lan-banaketan oinarrituta zegoen Durkheimen *elkartasun organikoa*. Gizartea, orain arte ezezagunak ziren parametroen artean kokatzen du eta banakoa, balore esparru zehatz batean.

Parametro hauetan gizartea ez da sistematzat ikusita, izakunde pragmatikotzat baizik, –osagaiak beren funtzioen arabera neurtzen dira eta– eta ezinbesteko urbanizazioaren eredupean, partaideen arteko lotura eta elkarrekintzak, hauen artean sor zitekeen adostasunaren gainera, espresuki aitortutako banako-eskubideen nagusitasunaren bitartez lortzen dira. Horrela bada, eskubideen bidez banako-portaeraren moralak ordezkatzeko saiatzen da, erabakiak hartzeko erreferentzia ez da jada komunitatearen esparruan kokatua, hala ere zenbait kasutan hori ez da lortzen; batez ere eskubideak, banako politikoaren defentsarako inperatibo kategorikoa diren bitartean, komunitate kultural txikikoen interes kolektiboarekiko beharkizun printzipio naturala tradizioan –lan kulturaren– kokaturiko aukera moralak delako, eta kasu horietan laxismoaren antzeko zerbaitearaino irits gaitezke.

Halako egoeratan banakoari gizarte-erantzukizunetik salbuesten zaio, eta arlo publikoan erabakiak hartzeko ahaltasuna ordezkari politikoen –edo teknikarien– esku gelditzen da. Izan ere modernitatearen demokrazia liberalaren eredia da, eta honetan sortarazi den hiritartasun formala. Honi dagokion banakoak ez du garatzen, ez du era sortzailean parte hartzen gizartearen garapenean; bere abstentionismoaren bidez ez bada. J. Petrasek dioenez “...*la ciudadanía formal se refiere a los atributos legales destinados al ciudadano según una constitución escrita o no escrita. La ciudadanía sustantiva se refiere a la capacidad de los individuos a ejercer el poder en el debate actual de la resolución de cuestiones políticas*”<sup>29</sup>. Beraz, arlo ekonomikoan ere hartutako erabakiak noren esku daude?

Ez da ukatzerik gizabanakoa, dagokion gizartearen emaitza dela eta bertan gauzatzen dituela dagokion betebeharrak. Bertan dauzka identitate kolektibo nahiz banakakoa lortzeko behar besteko baliabideak eta zerbaiz subjektiboa bada ere, bertan eraikitzen du errealitateari buruzko bere

---

28. MARTÍ I PEREZ, Josep (57).

29. PETRAS, James 2000 (134).

interpretapena, bere “egia” nolabait. Hemen komenigarria litzateke bereiztea gizabanako eta gizakia, azken hau ez baita gizabanako izango komunitate bati atxikituta izaten onartzen ez duen bitartean, orduan bihurtuko da subjektua.

Komunitate baten partaideak identitate-erreferentzia garbiak eduki behar ditu, gutxiengo segurtasun maila lortzeko, zenbait ohituren inguruan non gizarte-elkarrekintzak burutzerakoan bere protagonismoa azaltzen den.

## **ERREALITATEAREN IRUDITIK IRUDIKATURIKO ERREALITERA**

Ekoizpen ererekiko erreferentziaz Hondarribiko arrantzaleak definitzekotan baxurako artisau arrantzaz jardutea izan da. (*marka irudia* deritzona) Arrantzatzeko mota honek oraindik berau erabiltzen omen duten arrantzaleei halako kutsu erromantikoa ematen die, batez ere tartean tradiziozko elementuak badirelako, baina arrazoi erromantikoak aparte utzita azpimarratu behar dena da jarduera honen garrantzi soziala. Egia da parametro ekonomikotik ikusita arrantza mota hau ez dela nabarmengarria, haatik jarduera honen inguruan sortutako ikusmina ikuspuntu ekonomizistaz egindako azterketan datza eta hau da jarduera eta bizimodua neurtzeko ikuspuntu bakarra.

Artisau arrantzagintzak ez du arrantza industrialaren zurruntasuna ezagutzen, artisau arrantzaleak, halaber, erabiltzen dituzten teknikan nahiz harrapatzen dituzten espezieetan malguak izan behar dira, zoliak. Horrela, mallabakarrak, trasmallo, bolintxe, kurrikan, tretza, nasak eta abar dira gehien erabilitakoak. Hondarribian usuenak pintxo eta sareak dira, beti ere kontuan harturik hegaluzea eta atuna harrapatzeko erabilitako teknika, beita biziarena alegia, EMIC ikuspuntutik selektiboa eta ez-industrialia izan arren ez dut artisautzat hartzen. Zergatik? Bada horretarako arrantzuntzien tamaina, baxurako arrantzari ekitea, itsasoratuta dauden egunak eta erabilitako teknologia maila mugatua oinarritzat hartu ditudalako (ikus 1 koadroa). Esan nahi dut, niretzat baxurakoa izan arren horrek ez du berarekin eramaten “artisautza” adjektiboa.

Arrantza mota sailkatzeko unean garaiz-garai parametro ezberdinak izan dira erabilitakoak eta, arrantzuntzien teknikak eta TRB –tamaina–, erabilitako teknologia edota arrantza jardueraren hurbiltasuna-urruntasuna izan dira parametro ohikoenak. Baxurakoa eta artisaua biak batera etorri dira gehien bat eta ezaugarri batzuez definituta izan ohi dira, alde batetik erabilitako ekoizpen bidez eta bestetik hauek baldintzatuta, harrapatutako espezieak eta hauen kopuru mugatuaz. Dena dela EMIC ikuspuntutik, arestian esan dudanez, berauek egiten duten arrantza mota, hau edozein mailatakoa izanik ere, haukeratze-arrantza den bitartean artisau arrantzat jotzen dute.

Hala ere azkeneko urteotan gero eta handiagoak eta teknifikatuagoak dira Hondarribiko kaian ikusten diren arrantzuntziak, 100 TRBtik gorako burdinazko xaflaz zein poliesterez eginak, urrutiago joateko eta arrantza mota intentsiboa gauzatzeko prest daudenak.

Lehen aipatutako txostenean eta ikuspuntu ekonomizista hutsik eginda-ko ikerketa baten bidez<sup>30</sup> bertako instituzio politikoak jabetu ziren arrantza-gintza mota honen errentagarritasun urriaz eta dudarik gabe, orduetik hona egoera hori leuntzekotan aurrera eraman dituzten neurriek arazoa konpondu ez badute ere, behintzat balizko haserrea arrazoi exogenoetarantz (Europaren eskakizunak, besteak beste) bideratzeko balio izan dute. Txosten horretan plazaratzen den ondorioan bi mailako arrazoiak aurkezten dira errentagarritasun eskasia adierazteko, egiturazkoak eta koiunturazkoak. Aurrenekoen artean, produktuaren komertzializazioaren inguruko plangintza eta egituraren falta, enkante-salmentaren sistema, eta enpresa-sakabanatze egoera dira nabarmenenak; bigarrenen artean, berriz, arrantzuntzien zahartasuna, eskaintzaren erregularizazioa, eta abarrekoak dira.

Arrantzuntzien berriztapena garbi dago ez dela nahiko neurria sektoreak dauzkan egiturazko ajeak zuzentzeko. Gero eta nabariagoa den inguru kapitalistan arrantzagintzari eutsi nahi dion sektoreak oso aukera gutxi dauka. Edo tradiziozko bide ekologikoak –eta artisaua– alde batera utzita, ekoizpen unitateen kontzentrazioa lortu –eta flotaren berrikuntzarekin batera bide honetatik jarraitzen omen da oraingo jarrera ofiziala,– eta ustiaketa ia-industrialari ekin, ala bestela tradizio ekologikoari jarraituz, giro lehiakorrean sartu nahian gutxiengoko aldaketak onartu. Baina erasokorrak ez diren erauzpen eraz baliaturik ez dute merkatuan lehiatzen ahal. Arazoa sortzen da beraz, tradizioa, ekologikoa (garapen iraunkorra) eta errentagarritasuna kontzeptuak uztartu nahi izaterakoan, baita “errentagarria” ikuspuntu tenporala hartzen denean ere. Ondoko koadroan ikusiko dugu hobeto gaurko egoerari dagokion sailkapena.

## 2. Koadroa

|                      | <b>Ekoizbideak</b> | <b>Ekoizpen erak</b> | <b>Lan Baldintzak</b>        | <b>Merkatua</b>             |
|----------------------|--------------------|----------------------|------------------------------|-----------------------------|
| <b>Errentagarria</b> | Kontzentrazioa     | Intentsiboa          | Partia                       | Enkantea                    |
| <b>Ekologikoa</b>    | Aniztasuna         | Selektiboa           | Erantzukizun<br>“partekatua” | Eskariaren gaineko kontrola |
| <b>Tradizioa</b>     | < 50 TRB           | Aurrekapitalista     | Partia                       | Enkantea                    |
| <b>Artisaua</b>      | Txikiak            | Aurrekapitalista     | Biziraupena                  | Familia kontsumoa           |

**Egun ez dira existitzen lanbide gisa**

Ikusten ahal denez nekez uztar daitezke elkar baztertzailak diren terminoak. Eta tradiziozko bidetik “errentagarria” iragotzeko erreza omen da, kontutan harturik merkatu sistemak tradiziozko artisau sistema erregulatzailea eskuratu duela bere onurarako. Normalizat hartu dugu sektore honetan ikus-tena dinamika kapitalistan jarduten duten patrioiak-armadoreak beren itsasontzietan ekoizpen-harremanak eta egoera aurrekapitalistak edukitzea,

30. IKEI. (1985).



–paternalismoa eta abar– penagarria da beren arrantzuntzi handiak errentagarriak izan daitezen armadoreek, bertako gazteak arrantzara muzin eginez, afrikar eta hego ameriketako arrantzaleak erabili behar izana. Eta gauza bera gertatzen da komertzializazioaren esparruan; sistema tradizionalan, bere alde onak eta txarrekin, arrantzaleen produktuaren jabetasuna enkanteraino iristen da, gerora, bentetatik kanpo eta merkatu sistema gordinean behin sartuz gero ekoizleek galtzen dute bestelako eskumena. Hau da, arrantzaleei sistema tradizionalako partila eta behetik egindako enkantea egozten zaizkien bitartean produktuaren komertzializazioa kapitaleko merkatu-dinamikan buru-belarri sartzen da –arrantzaleen kalterako–<sup>31</sup> Beraz, globalizazioaren eredu ekonomikoan, nekez sar daiteke tradizioaren izenean gorde nahi den ekoizpen era jakin bat. Eta gainera sartze nahi horrek estrategia ekonomikoaren eraldaketaz gain gizarte harremanetan suertatuko diren eraginak onartzeko prest izatea ere suposatzen du.

Hondarribiko arrantzaleak, aspalditik barneratu dute halako ekoizpen era onesteko beharrezkoak diren gizarte baldintzak, ez da kolektibo itxia izan eta inguruko beste errealitateekiko harremanak prozesu sinbiotiko baten bidez aurrera eramaten jakin dute. Lan prozesu guztien ondorioz sortzen dira ekoizpen eta gizarte harremanak baina globalizazio ekonomikoaren prozesuak planteatu dituen aldaketa ekonomikoez gain aldaketa sozio-kulturala ere ezarri zaie eta kasu honetan –beste askotan bezala– premiazko zen kolektiboaren alde ideiatikoa –sinbolo, balore, usteak eta sinismenak, sinbolo unibertsoa, hau da bere lan-kultura– alde aurretik eragitea gerora terziarizazioarako bidea ezinbestekotzat jotzeko. Finean ekonomia arloan zenbait jarrera instituzionalizatzeko gizarte-portaerak eta elkarrekintzak modu jakin batez tipifikatzea beharrezkoa da<sup>32</sup>.

Ohiko ekoizpen harremanek ez diete jadanik erantzuten bertako gizarte errealitateari eta egiturari<sup>33</sup> Eta esandako joan-etorriko prozesu horren ondorioz arrantzaleek ere ikusten dute bere inguruko merkatu dinamikaren eraginek beren burua gailentzen dutela eta hala ere, ez dute nahi bere protagonismoa galdu. Hanka bat Europan jarrita bestea eduki nahi dute Hondarribian, baina konturatu gabe ekonomia arlotik, beren lan-prozesuan bete ditzatela eskatzen dieten aldaketek zerikusi zuzena daukatela beren gizarte bizitzan eta –azken finean– nortasun esparruan.

---

31. PASCUAL, José. *La producción pesquera y su desarrollo no reside completamente en una buena gestión ni en las iniciativas del patrón y/o armador, su mayor problema reside en que en última instancia están en manos del comercio.* Zainak 15 (24). 1997.

32. BERGER, P.; LUCKMANN, Th. 2001 (76-77).

33. MORENO, Isidoro in AREAS 19 (29-30) *Es sobre todo a través de éstos (aparatos de Estado, jurídicos comunicativos, educativos etc.) como los nuevos valores centrales que genera el Absoluto Social hoy dominante, el sacro Mercado (...) han penetrado y siguen penetrando en las culturas del trabajo de la mayor parte de los trabajadores, aunque ello choque con valores sociales que estaban, o parecían estar, firmemente establecidos en éstas.*

Baina egokitze prozesuak berak baxurako artisau arrantzale izaten jarraitzeko ahalbideari uko egingo balio, noraino ez ote da zilegi formula mistoari eustea? Azken finean ekonomia erabakiak hartzea bere esku ez bada, bai ordea beren burua nola definitu, baina honek ez du esan nahi egokitze prozesua arlo ekonomiko soilik eragiten duenik, Hondarribian, oraindik ere, arrantzale izatea behera doan lan kultura baten kide izatea da, non bere errealitatea gauzatzen den eta bere nortasunak oso lotura hertsia dauzka ezagutza munduarekin, balorapenarekin, kontzepzioarekin eta abarrekin.

Hondarribia, urbanizazio prozesuan dagoen hiri bat da, eta urbanizazio prozesu honetan ematen ari diren espazioen banaketan, populazioaren maila ezberdinek dauzkate beren *locusak*, hau da, kolektibo ezberdinen identitatea eta erabiltzen duten espazio urbanoen arteko lotura, agerian utziz hiri hierarkizazio-maila. Arestian esan dut –edo hori esan nahi izan dut– arrantzaleak ohituta daudela bere inguru espazialean dauden kultura eta portaera ezberdinekin bizitzera. Beste tratamendu bat izan dute bere lan-espazioarekiko –arrantzaleentzat sarrera libreko espazioa non orain sarrera murrizak ezartzeko neurrian hartzen ari diren– baina ez dut hemen eta orain auzi hori ukituko.

Noizbait beren neurrira eraikitako hiriak aspalditik galdu ditu arrantzagintzaren inguruan sorturiko beharrak (materialak-sozialak) asetzeko planteaturiko espazioen sailkapenak. Globalizazioaren ondorio bat hauxe da hain zuzen, herriak, hiriak urbanizazio-prozesuan galdu dituztela berezko ezaugarriak “...ninguna ciudad es pensable como realidad aislada y circunscrita dentro de sus muros”<sup>34</sup> eta horrek zer suposatzen duenari buruzko ziurtasun morala edukiz, arrantzaleek alde sinbolikoan ez beste inon egiten dioten aurre.

Halako dialektikan uler dezakegu identitatearen arlo sinbolikoan emanda-ko gatazkaren zioa. Tintontzian gelditzen dira familiaren ikerketa sakona, hierarkiak, lan banaketa, erlijioarekiko harremanak, emakumearen statusa, arrantza espezializazioaren ikerketa ekonomikoa, denboraren kontzientziari buruzko burutazioak, Hondarribiko arrantzale populazioaren ikerketa konparatzailea, espazio fisikoa, administratiboa eta ekonomikoaren ikerketa, hiri-espazioaren aldaketak eta honen eraginak, arrantzaleen zentzu pragmatikoa, hizkuntza eta bere gaurko egoera... etab etab. Ematen ari diren aldaketak onartzeko arrantzaleen ustezko gaitasunaz sakonki ikertzea alegia. Hau da, aldaketen identifikazioa eta tratamendua.

Hemen, berriro diot, Erdi Aroan eta egoera jakin batzuei erantzuteko nahian ezarritako arrantzatze eta merkaturatzeko baliabideak, egun erabili nahi izateak –eta gainera kutsu kulturala emanez– ez du zentzu logikorik, ez bada, egoera tamalgarriari eutsi nahian, edo bestela esanda, neoliberalismoaren onurarako –eta honi balio zaion bitartean– ez bada. Horregatik pentsatzen dut, gure artean dagoen arrantza mota ez dela jada artisaua, arrantzuntzien teknifikazioak ustiaketa errentagarria bilatzen du –eta indarre-

---

34. SIGNORELLI, Amalia 1999 (71).

an jarri den aldiro horixe bilatu du– eta honekin batera parte hartzen du halaber gainustiaketan, eta gainera honek, tradizioan finkaturiko zenbait ezaugarri direla eta, ez du ematen ahal dituen emaitzak.

Arrantzaleak ulertu behar du bere etorkizuna ez dagoela bere esku, teknikariek eta politikoez hartu diote lekukoa jada eta patua hala ezarrita, teknifikazio maila handiekin ez duela bere bizimodua salbatuko bai, ordea, haien kurrikuluma handituko.

## BIBLIOGRAFIA

- ALBERDI LONBIDE, Xabier: “La pesca en el litoral de Gipuzkoa durante la Edad Moderna”. In: *Itsas Memoria, Revista de Estudios Marítimos del País Vasco*, 3. zenb. 2000; 99-129 or.
- ARBEX, Juan Carlos: *Arrantzaria, Evolucion de la construccion artesana de la pesca y de sus artes en Euskalherria*. Bilbao: Petronor, 1984; 265 or.
- ASTORKIZA, Kepa; DEL VALLE, Ikerne; ASTORKIZA, Inmaculada: “Posibilidades de pervivencia de la cogestión en las pesquerías de la Unión Europea”. In: *Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía*, 21. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2002; 49-62 or.
- BARANDIARAN IRIZAR, Felipe: *Comunidad de pescadores de bajura de Pasajes San Juan, (Ayer y hoy)*. Oiartzun: Danona, 1982; 462 or.
- BECK, Ulrich: *¿Qué es la globalización?* Barcelona: Paidós, 1998; 224 or.
- BENAVIDES, Jose M<sup>a</sup> et al: *En los grandes bancos de Terranova*. Donostia: Txertoa, 2000; 156 or.
- BERGER, Peter; LUCKMANN, Thomas: *La construcción social de la realidad*, 17. arg. Buenos Aires: Amorrortu, 2001; 233 or.
- CLAVERIA, Carlos: *Los vascos en el mar*. Pamplona: Aramburu, 1966; 351 or.
- COMAS d'ARGEMIS, Dolores: *Antropología Económica*, 1. arg., Barcelona: Ariel, 1998; 238 or.
- EE.EE: *Hondarribia Aldizkaria*, Zenbaki berezia. Hondarribia: Udal Euskara Azpibatzerdea, 1997.
- ERKOREKA GERVASIO, Josu Inaki: *Análisis histórico institucional de las cofradías de mareantes del País Vasco*. 1. arg. Vitoria/Gazteiz: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 1991; 664 or.
- ERKOREKA, J.I.; SALMERON, Gorka: “Itsas Arrantza”, In: *Bertan*, 12. zenb. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1998; 116 or.
- ETXEBURUTAR, Jose M<sup>a</sup>: *Ondarribiako kondaira*. Zarautz: Itxaropena SA, 1986; 282 or.
- GARCIANDIA TELLERIA, Felix: *Análisis estratégico y económico aplicado a la pesca*, 1. arg. Zarautz: Mondragon Unibertsitatea, 1999; 244 or.
- GOYHENECHÉ, Eugène: *Bayonne et la région bayonnaise du XIIème au XVème siècle. Etudes d'histoire économique et sociale*. Bilbao: Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco, 1990; 541 or.

Anduaga, J.: Artisanu arrantza eta gizarte aldaketarako egoerak. Hondarribiko arrantzaleen gertaera

HUXLEY, Selma: "Los vascos y las pesquerías transatlánticas 1517-1713", In: *Itsasoa* 3. zenb. Donostia: Etor, 1984; 26-148 or.

IKEI: "Rentabilidad de la flota vasca de bajura", in: *Informe-estudio 1985*. Vitoria/Gasteiz: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 1985: 174 or.

LE PLAY, Frédéric: *Campesinos y pescadores del norte de España*. Madrid: Mapa Secretaría General Técnica, 1990; 214 or.

MARTINEZ-VEIGA Ubaldo: *Antropología Económica*, 1. Arg. Barcelona: Icaria SA, 1990; 163 or.

MARTY I PEREZ, Josep: *El folklorismo, uso y abuso de la tradición*. Barcelona: Ronsel, 1995; 248 or.

MUGICA ZUFIRIA, Serapio: "La vida del Pescador", In: *Euskalerrriaren alde*. 68-71 zenb.; 1913; 688-699/722-729 or.

PEREZ ALDASORO, Pio: *Pasaiko arrantzaleen lan eta gizarte harremani buruzko azterketa antropologikoa*, 1. Arg. EHUKo Argitalpen Zerbitzua, UPV-EHU, 283 or.

PETRAS, James: "Informe PETRAS", In: *Sediciones* 13 zenb. 2.arg. Hondarribia: Hiru, 2000; 172 or.

POLANYI, Karl: *La gran Transformación*. Madrid: La Piqueta, 1997; 466 or.

RUBIO-ARDANAZ, Juan A.: "Estudios sobre cultura pescadora, un trabajo de antropología marítima en Santurce (Vizcaya)", In: *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* nº 57. En-Jun 1991; 81-87 or.

SIGNORELLI, Amalia: *Antropología Urbana*, 1.arg. Barcelona: Anthropos, 1999; 251 or.